

## X. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

### Otoitza

On guztien iturri zaren Jauna,  
entzun gure otoitza:  
zure argiak argi egin diezagula, zuzen dena ezagutzeko,  
eta zure laguntzak indar eman, betetzeko.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 1 Erg 17, 17-24

*Bizi da zure semea.*

Erregeen liburutik

Egun haietan, gaixotu egin zen etxeakoandreaken semea; gaitz gogor batek jo zuen, arnasarik gabe gelditzeraino. Orduan honela esan zion emakumeak Eliasi: «Zer gertatzen da gu bion artean, Jaungoikoaren gizon? Nire okerren oroipena berritzera eta nire sema hiltzera etorri al zara nire etxera?»

Eliasek erantzun zion: «Ekatzu zure seme hori». Hartu zion semea altzotik, haren goiko gelara eramane eta bere ohean ipini zuen. Gero Jaunari dei egin zion: «Jauna, ene Jaungoikoa, bere etxean naukan alargun hau ere zigortu egin behar al duzu, bere semea hil araziz?» Gero hiru aldiz haurraren gainean etzan eta oihu egin zion Jaunari: «Jauna, ene Jaungoikoa, betorkio haur honi berriro arnasa».

Entzun zuen Jaunak Eliasen eskaria; eta etorri zitzaion berriro haurrari arnasa, eta berpiztu zen. Orduan Eliasek haurra harturik, goiko gelatik behera jaitsi zuen eta amari eman zion, esanez: «Bizi da zure semea».

Eta emakumeak Eliasi: «Orain ezagutzen dut Jaungoikoaren gizona zarela, eta Jaungoikoaren hitza zure ahoan egia dela».

ERANTZUN SALMOA: Sal 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b

**R/. Goretsiko zaitut, Jauna,  
onik atera nauzulako.**

Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,  
etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.  
Jauna, Leizetik nire bizia atera duzu,  
zulora doazenengandik bizirik gorde nauzu. R/.

Eresi egiozue, zintzoek, Jaunari,  
eman eskerrak Haren izen santuari.  
Une bateko da Haren haserrea,  
bizi guztirako Haren on izatea.  
Negarra dator arratsaldean,  
baina poza goizean. R/.

Entzun niri, eta nitaz erruki, Jauna,  
izan zakizkit kaguntzaile, Jauna.  
Negarra, dantza bihurtu didazu,

Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.

II. IRAKURGAIA: Ga 1, 11-19

*Bere Semea agertu zidan,  
Haren berri ona atzerritarrei emateko.*

San Paulo Apostoluak Galaziarrei

Senideok: Jakin arazten dizuet, nik erakutsi dizuedan berri ona ez dela gizakiarena. Izan ere, ez dut, ez hartu, ez ikasi, gizakiengandik; Jesu Kristoren agerpenez baizik.

Entzunik duzue, noski, nire noizbaiteko judutar jokabidea: nolako gogorrez eragozten nion eta kalte egiten Jaungoikoaren Elizari; eta judutar jokabidean, neure adineko eta herritar asko baino nabarmenago nintzela, neure guraso-ohituren zaintzaile bero.

Baina neure amaren sabeletik bereizi, eta bere graziaren bidez dei egin zidanak bere Semea agertu zidan, Haren berri ona atzerritarrei emateko; berehala Arabiara joan nintzen, gizakiei aditu gabe eta ni baino lehenagotik apostolu zirenen bila Jerusalemara joan gabe; gero Damaskora itzuli nintzen. Handik hiru urtetara, Jerusalemara igo nintzen Pedro ikustera; eta hamabost egunez harekin egon nintzen. Eta beste apostolurik ez nuen ikusi, Jaunaren anaia Santiago izan ezik.

EBANJELIOA: Lk 7, 11-17

**Aleluia:** Lk 7, 16

R/. Aleluia.

V/. Profeta haundi bat agertu da gure artean.  
Jaungoikoak ikustaldi egin dio bere herriari. R/.

*Mutil, zuri diotsut: jaiki zaitez.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, bazihoan Jesus Nain deritzan herrira, eta Harekin batean ikasleak eta lagun talde haundia. Eta herriko ateetara hurbildu zenean, han zeramaten lur ematera hildako bat, amaren seme bakarra —ama alarguna zen—, eta honekin herriko talde haundia.

Ama hura ikustean, erruki izan zuen Jaunak; eta esan zion: «Ez negarrik egin!» Hurbildurik, ukitu zuen Jesusek zerraldoa —hilketariak gelditu ziren—, eta esan zuen: «Mutil, zuri diotsut: jaiki zaitez!» Hildakoa eseri zen, eta hizketan hasi; eta Jesusek amari eman zion.

Guztiak beldurtu ziren, eta Jaungoikoa goretsiz, honela zioten: «Profeta haundi bat agertu da gure artean. Jaungoikoak ikustaldi egin dio bere herriari». Eta hartaz ziotena, Judea osoan eta inguruko herri guztietan zabaldu zen.

### **Oparigaien gainekoa**

Begi onez begira, Jauna, aldareko gure zerbitzuari:  
gure eskaintza Zuretzat atsegingarri izan dadin  
eta gure maitasunarentzat sendogarri.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jainko guztiz ona,  
Zuk emandako sendabide honek  
geure gaizakerietatik atera gaitzala  
eta bide zuzenera eraman.  
Jesu Kristo.